

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 435/2021 Erabakia, uztailaren 13koa. Onestea kirol klub eta elkar-teentzako dirulaguntza lerro baten deialdia, 2020-2021 denboraldiko kadete eta gazteen 2020-2021 joan-etorrietarako

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuak (Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen abuztuaren 2ko 41/2019 Foru Dekretuak aldatua) Kirol Zuzendaritzaren eginkizunen artean ezartzen du kirol federatuaren garapena sustatzea, kirol-klub, -elkarte eta -elkarteekin lankidetzan.

Eskumen horiek baliatuz, aipatutako Kirol Zuzendaritzak klubei eta kirol-elkarteei laguntza ekonomikoa ematea aurreikusten du, kadete- eta gazte-taldean joan-etorrietan lehiaketetan parte har dezaten, 2020ko uztailaren 1etik 2021eko urriaren 17ra bitartean, biak barne.

2019ko eta 2020ko aurrekontuetan, laguntza-ildo horretarako partida bat sartu zen, baina COVID-19 pandemiaren eta lehiaketako jarduera fisiko federatu oro etetearen ondorioz, laguntza hori 2021ean ez deitzea erabaki zen. Ondoren, lehiaketa federatuak berriz hastean, Arabako klubek beren kirolariak garraiatzeak dakarren aurrekontu-kargaren jakitun, deialdi honi berriro ekitea erabaki da, eta aurtengo aurrekontuan partida espezifikoak sortzea.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) eta haren ondorengo aldaketan bidez, oinarri orokor arautzaileak onartu zituen, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatzeko.

Kirol zerbitzuko buruak egindako txostena ikusita.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea kirol-klubei eta -elkarteei joan etorriak egiteko laguntza ekonomikoa emateko deialdia, kadete- eta gazte-taldeentzat, horren oinarriak I eranskinean doaz atxikita.

Bigarrena. Aldatzea Foru Sektore Publikoaren Dirulaguntzen 2020-2022 aldirako Plan Estrategikoaren eranskina, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onartu baitzen. Ebazpen honen II. eranskinean dago jasota.

Hirugarrena. Gastu hori 70.2.01.77.01.4810010 "Klubean joan etorrietarako laguntza" 70-141 ildoan, Arabako Foru Aldundiak 2021eko ekitaldirako duen gastu-aurrekontukoan, gehienez 30.000,00 eurokoa, erreferentzia zenbaki laburra: 105-2342/21.1.21.

Laugarrena. Deialdi honek hogeita hamar mila euroko (30.000,00 euro) gehieneko zuzkidura izango du, ondorengoetan adierazitakoaren arabera arautuko da: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua (2019ko azaroaren 20ko ALHAOn, 134. zenbakia), eta haren ondorengo aldaketak aurreikusitakoa, Kultura eta Kirol sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko oinarri arautzaile orokorrak; eta erabaki honen eranskinean jasotzen diren oinarri espezifikoak.

Bosgarrena. Organo eskudunak, Kirol Zerbitzuaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Seigarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitako moduan jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar daskioke Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin daskioke bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

I. eranskina

Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkartei emango zaizkien dirulaguntzen deialdia, kadete eta gazte taldeek egiten dituzten joan-etorrietarako laguntza emateko. 2020-2021 denboraldia

1. artikulua. Xedea, helburua eta dirulaguntza emateko prozedura

Dealdiaren xedea da Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteekin lankidetzaz aritzea, kadete eta gazte taldeek 2020-2021 denboraldian lehiaketetan parte hartzeko egiten dituzten joan-etorrietan.

Deialdia norgehiagoka bidez egingo da.

Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak eta haren ondoko aldaketek arautuko dute.

2. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere helburu horretara bideratu den zuzkidura baino gehiago, hau da, 30.000,00 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko gastu aurrekontuko "Klubak joan-etorrietarako laguntzak" izeneko 70.2.01.77.01.4810010 partidaren kontura ordainduko da.

3. artikulua. Erakunde onuradunak eta kanpoan utzitakoak

Arabako kirol federazioetako bati atxikitako kirol klubak eta elkarteak izango dira onuradunak.

Ez dira onuradun izango Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak lehiaketa bidez ematea arautzen duten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian jasotzen diren baztertze egoeretan dauden erakundeak.

4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Errioxan, Kantabriari eta Gaztela eta Leonen 2020ko uztailaren 1etik 2021eko urriaren 17ra bitartean egindako lehiaketetan parte hartzeko kirol klub eta elkarte eskatzaileetako kadete eta gazte taldeek (2003 eta 2006 urteen artean jaiotako kirolariak, biak barne) egindako joan-etorriak, inskribatuta dauden Arabako federazioak ezin izan duelako lehiaketa federaturik antolatu.

Bakar-bakarrik lagunduko dira diruz kirolari eta langile teknikoen joan-etorrien gastuak, hau da, zuzendaritza langileenak ez.

Joan-etorriak garraio kolektibo publiko zein pribatuan egin beharko dira (autobusa, tren, taxia, etab.).

Mugitu beharreko pertsona kopurua dela-eta garraio kolektiboa gomendagarria ez bada, ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorrien gastuen egiaztagiriak aurkeztu ahal izango dira, eta lagunduko da 0,29 euro, kilometro bakoitzeko. Gastu hori justifikatzeko, honekin batera doan inprimakia aurkeztu beharko da: "Ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorrien gastua". Ziurtagiri hori erakundearen ordezkariak sinatu beharko du, eta dagokion kirol erakundeak zigilatu.

Goian aipatutako inguruabarretako edozeinetan, ulertuko da erakunde eskatzailearen egoitzatik aterako dela lehiaketa egiten den lekura, eta, itzulerako bidaian, irteerako herria izango dela lehiaketa lekua, eta helmuga erakunde eskatzailearen egoitzako herria.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Kirol klub edo elkarteek eskaera bana baino ezin izango dute aurkeztu.

Erakunde eskatzaileak hainbat ekipo baditu egoera berberetan, den-denak sartu beharko ditu, baina bereizita, eskabide bakarrean.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek beti daude behartuta eskaera telematikoa egitera: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargo bateko kide izatea eskatzen duen lanbide-jarduera bat egiten dutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak. Horrela, eskaerak egoitza elektronikoa honetan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez soilik formalizatuko dira: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/subvenciones-federaciones-deportivas-alavesas-desplazamientos-equipos-cadetes-juveniles>.

Horretarako, aldeztu aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Nolanahi ere, Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

3. Eskaerak osorik bete ezean edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar egun balioduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

4. Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakunde horrek horren aurka egiten badu; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerarekin batera kasuan kasuko Arabako federazioen ziurtagiria aurkeztuko da, kaltetutako taldeak zein diren eta Araban txapelketarik ez dagoelako joan-etorri horiek egiteko beharra justifikatuta, honekin batera doan agiriaren arabera.

7. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko irailaren 1etik 14ra arte izango da, bi egun horiek barne. Epea irailaren 14an bukatuko da, 13:00etan.

8. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

2. Eskabideak balioesteko, diruz lagun daitezkeen gastu guztiak hartuko dira kontuan, taula honen arabera:

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUEN AURREKONTUA	PUNTUAK
0,01 eta 2.000,00 euro artean	5
2.000,01 eta 4.000,00 euro artean	10
4.000,01 eta 6.000,00 euro artean	15
6.000,01 eta 8.000,00 euro artean	20
8.000,01 eta 10.000,00 euro artean	25
10.000,01 eta 12.000,00 euro artean	30
12.000,01 eta 14.000,00 euro artean	35
14.000,01 eta 16.000,00 euro artean	40
16.000,01 eta 18.000,00 euro artean	45
18.000,01 eta 20.000,00 euro artean	50
20.000,00 euro baino gehiago	55

Dirulaguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema erabiliko da. Horretarako, 2. artikuluan zehaztutako zenbatekoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturaren artean zatituko da. Horren emaitza puntuaren balioa izango da. Puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatzearen emaitza izango da ateratzen den laguntza.

3. Lortutako zenbatekoa edozein dela ere, honako muga hauek aplikatuko dira:

- Diruz lagundu daitezkeen gastuen gutzizko zenbatekoa.

4. Muga horiek aplikatu ondoren, erakunde eskatzaile guztiek jaso beharreko zenbatekoaren batura deialdiaren zenbateko osoa baino txikiagoa bada, bigarren banaketa bat egingo da soberako zenbatekoarekin, aurreko puntuan ezarritako muga ekonomikoetara iritsi ez diren erakundearen artean.

Bigarren banaketa horretarako, soberako kopurua zatituko da aurreko apartatuan ezarritako muga batera ere iritsi ez diren erakundearen puntu kopuruarekin; horrela, puntuari dagokion bigarren balio bat lortuko da. Puntuaren bigarren balio hori biderkatu egingo da erakunde bakoitzari emandako puntu kopuruarekin. Horrela, bigarren banaketa horretan esleitu beharreko diru kopurua lortuko da, eta lehen banaketari gehituko zaio.

Soberakin ekonomikorik badago, aurreko paragrafoan deskribatutako eragiketa errepikatuko da, harik eta deialdiaren gehieneko kopurura iritsi arte.

5. Ez dute dirulaguntzarik jasoko deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren 150 eurora iristen ez diren eskaerak.

9. artikulua. Ebazpena

1. Eskaerak balioespen batzorde batek aztertuko ditu. Balioespen batzorde horren buru Kirol Zuzendaritza izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bat. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, Balioespen Batzordeak txostena egingo du, eta ebaluazioaren emaitza zehaztuko du han.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza emateko ebazpenak jaso beharko du eskatzaileetako zeini ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren berariazko ezespina. Ebazpenean adierazi beharko da dirulaguntza zenbatekoa den, nola ordainduko den, zer agiri aurkeztu behar den eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 41. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

6. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin.

10. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Justifikazioa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan baino ez da aurkeztuko: https://e-s.araba.eus/wps/portal/iniciarSesion_eu, "Nire espedienteak" atalean, deialdiaren espediente espezifikoa sartuta.

3. 2021eko azaroaren 2a baino lehen, erakunde onuradunek honako justifikazio dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Egindako garraioaren fakturak:

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea. • Data.
- Fakturaren zenbakia

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZeko (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokien zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak.

b) 500 eurotik gorako garraio gastuen banku ordainagiriak. Honako hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Jatorrizko erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza guneeetakoak, autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa, edo haren kontrabalioa atzerriko dirutan.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

c) Mugitu beharreko pertsona kopurua dela-eta garraio kolektiboa gomendagarria ez bada, ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorrien gastuen egiaztagiria aurkeztu ahal izango dira, eta balioespena izango da 0,29 euro kilometro bakoitzeko. "Ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorrien gastua" dokumentu bat aurkeztu beharko da (deialdi honi erantsita doa) horrela egindako joan-etorri bakoitzeko, eskaera aurkezten duen pertsonak sinatuta eta kasuan kasuko kirol erakundeak zigilatuta.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, erakundearen ordezkariak sinatua, honako hauek jasoko dituenak: espedienteari erantzen zaizkion fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela direla, jatorrizkoak klub edo elkartearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituela, hala eskatzen zaionean.

11. artikulua. Bateragarritasuna

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa berarentzat emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagundutako programaren edo programen kostua gainditzen ez badu.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzailari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik. Horien guztien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta, nolahi ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

12. artikulua. Publizitatea

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.
2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus) egongo da ikusgai, Herritarrentzako zerbitzuak / Laguntzak eta dirulaguntzak izeneko atalean.
3. Herritarrei diruz lagundutako jardueraren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, publizitate horretan hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabili beharko dira, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabea bermatu.

13. artikulua. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpreta-zioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

II. eranskina

Dirulaguntzaren lerroa: Kirol klub eta elkarteentzako dirulaguntzak, kadete eta gazteen joan-etorrietarako.

Ardatz estrategikoa: Arabako lurralde-garapena.

Saila: Kultura eta Kirola.

Aurrekontu-partida:

70.2.01.77.01.4810010 "Klubuen joan-etorrietarako laguntza"

2021	GUZTIRA
30.000,00	30.000,00

Dirulaguntzaren helburua: Arabako kirol federazioei atxikitako kirol-klub eta -elkarteei laguntzea, kadete- eta gazte-taldeek 2020-2021 denboraldian lehiaketetan parte hartzeko egi-ten dituzten joan-etorrietan.

Onuradunak: Arabako kirol federazioei atxikitako kirol-klubak eta -elkartek.

Emateko prozedura: Norgehiagoka

Dirulaguntzaren oinarritzko ildoak:

Baterako finantzaketa:

Jarraipen-araubidea eta adierazleak:




**Ibilgailu pribatuetako joan-etorrien gastua
2021**

Gasto por traslado en vehículos privados

GAZTE ETA KADETEEN JOAN ETORRIETARAKO DIRULAGUNTZA - 2021 AYUDAS DESPLAZAMIENTOS DE JUVENILES Y CADETES - 2021											
IFZA / CIF	Ekartzalea (Kluba) / Solicitante (Club)	Plaza Kopurua (Gidaria bako)	Josteko data	Josteko data	Irisiako data	Irisiako data	Irisiako data	Irisiako data	Irisiako data	Irisiako data	
	Matricula del Vehículo	Número de Plazas (Incluido el conductor)	Fecha de Salida	Fecha de Salida	Fecha de Llegada	Fecha de Llegada	Localidad salida	Localidad llegada	Localidad llegada	Localidad llegada	
1											
2											
3											
4											
5											
6											
7											
8											
9											
10											
11											
12											
13											
14											
15											
16											
17											
18											
19											
20											
21											
22											
23											
24											
25											
26											
27											
28											
29											
30											
31											
32											
33											
34											
35											
36											
37											
38											
39											
40											
									Kilometro Guztiak Total Kilómetros	0	€

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Ordezkararen sinadura eta zigilua
Firma representante de la entidad y sello

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Federazioaren Ziurtagiria Certificado Federación	2021
	Kultura eta Kirol Saila Departamento de Cultura y Deporte	

FEDERACIÓN ALAVESA DE		ARABAKO FEDERAZIOA
-----------------------	--	--------------------

ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA

Ondoren zehazten den kirol klubak edo taldeak honako datuak dituela:

Que el siguiente club o agrupación deportiva tiene estos datos:

Sozietatearen izena ■ Razón social

	IFZ/NIF	
--	---------	--

Kirol diziplina Disciplina deportiva	
Gazte mailako talde kopurua (2003-2004) Nº de equipos en categoría juvenil (2003-2004)	
Kadete mailako talde kopurua (2005-2006) Nº de equipos en categoría cadete (2005-2006)	

Arabako kirol federazio honi atxikita dago	<input type="checkbox"/>	Se encuentra adscrito/a a esta Federación deportiva alavesa.
Goian adierazten den Klub edo kirol-elkartea Arabako Lurralde Historikotik kanpo joan behar da, Araban ez dagoelako bere mailako lehiaketarik	<input type="checkbox"/>	El club o agrupación deportiva señalado arriba debe desplazarse fuera del Territorio Histórico de Álava por no existir competición de su categoría en Álava.

(markatu X batekin ■ marcar con una X)

Federazioaren ordezkaria
Representante de la federación

Ordez kariaren sinadura
Firma de representante

ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA
SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA

Orria ■ Hoja 1/1